

29/2018 FORU AGINDUA, otsailaren 7koa, Eskubide Sozialetako kontseilariak emana, hasiera ematen diona mendekotasuna duten pertsonen etxean eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko beharrezkoak diren zainketak eskuratzeko zerbitzu bat, pertsona bat edo zerbitzu enpresa bat kontratatzeko diru-laguntzak Nafarroan aplikagarri izanen duen araubide juridiko eta ekonomikoa arautzen duen Foru Agindua prestatzeko prozedurari.

Ekainaren 17ko 69/2008 Foru Dekretuaren bidez, Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroa onetsi zen. Horren bidez ezartzen dira Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde osoan aplikatzekoak diren gizarte zerbitzuen sistema publikoaren prestazioak. Dekretu horrek, I. eranskineko B letraren 24 zenbakian, mendekotasuna duten pertsonak etxean gelditu eta haien zaintzaileei laguntzeko prestazio ekonomikoak arautzen ditu prestazio bermatu gisa. Laguntza horrek bi mota ditu: bata, familia inguruan, ahaideek edo ingurukoek ematen dituzten zainketarako, zaintzaile nagusi baten izendapena behar duena, eta urtarrilaren 18ko 62/2013 Foru Aginduak arautzen duena. Bestea, zerbitzu baten, pertsona baten edo zerbitzu enpresa baten kontrataziorako, erregelamenduzko xedapen baten bidezko garapena behar duena aplikatu ahal izateko.

Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako Balorazioen eta Zerbitzuen Zuzendariordetzak proposatu du foru agindu berri baten bitartez arautzea diru-laguntzaren bigarren mota horren araubide juridiko eta ekonomikoa, hau da, zerbitzu baten, pertsona baten edo zerbitzu enpresa baten kontrataziorako ematen dena, mendekotasuna duten pertsonen etxean eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko beharrezkoak diren zainketak eskuratzeko.

Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 59 artikulua ezartzen du erregelamenduzko xedapenak egiteko prozesua Nafarroako Gobernuan gai horretan eskuduna den kontseilariak hasiko duela eta hark prozeduraz arduratuko den organoa izendatuko duela.

Horrenbestez, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeak ematen dizkidan eskumenak erabiliz,

AGINDU DUT:

1.- Hasiera ematea honako hau arautzen duen Foru Agindua prestatzeko prozedurari: mendekotasuna duten pertsonen etxean eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko beharrezkoak diren zainketak eskuratzeko zerbitzu bat, pertsona bat edo zerbitzu enpresa bat

kontratatzeko diru-laguntzak Nafarroan aplikagarri izanen duen araubide juridiko eta ekonomikoa.

2.- Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako Balorazioen eta Zerbitzuen Zuzendariordetza izendatzea prozeduraz arduratzen den organoa izan dadin.

3.- Foru Agindu hau Prestazioen Koordinazio Administratiboaren Atalari jakinaraztea, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2018ko otsailaren 7an

ESKUBIDE SOZIALETAKO KONTSEILARIA

Miguel Laparra Navarro